


Ez dezute izango
Mandamentu ontan,
Onelako aukera
Nai dan denboretan;

Orañ bada sayatu
Guziyak benetan,
Gero ibilli gabe
Mar-mar bazterretan.

FRANKO ARANGUREN-GOAK.



BIYAK NAI.



Zuben beirik onena
bere baserriyan
Isidrok saldu zuben
atzoko feriyen.
Bañan eskubak bete
diru arturikan
negarrez gelditu zan
beyarengatikan.

MARZELINO SOROA.



IKUSI BAIETZ BATEAN.

ZATOA TA IZARRAK



Gau batean bidean
Zijoala Martiñ
Napar-ardo zatoa
Zeraman berekiñ;
Egarri zan, ta nola
Ontzirik etzuen

Zerura apunterian
Jarri t'edan zuen.
Eta garbi zerua
Egonik, ara emen
Zatoa ta izarrak
Non ikus zituen.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

